# BIZITEGI ERAIKINA — EASO 79

**D MAILA**





**Egilea eta data: Luis Elizalde; 1914**

**Deskribapena.**
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1955eko bi jasodura atzeraemanak (lehenak pergola bat du fatxada planoan). Harlanduzko fatxada, erdialdean oin plano erdieliptikoko hormigoizko begiratokia duena. Bao bikoitzak ditu jatorriz behe oinean. Proiektu komuna Easo 77rekin eta 81ekin.

**Babes erregimena.**

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.